

OLENTZARO ETA BERE ADREDIA

Olentzaro. Izen onek eta bere inguruko zenbait iduri, sinismen eta oikundeak urtegarai bat adierazten dute Oresa'n, Lesaka'n eta Arakil'en. Urtearen azkenaldea alegia, une eta igarobide garrantzizkoa benetan: Gabon-Eguberriak, urteko jai atsegiñenak bearbada geienentzat.

Bainan izen orren adiera beste itz askoren bidez ere azaldu oi degu euskaldunok. Ona emen batzuek: *Olentzero* (Donostia, Oyarzun, Irun, Bera), *Orantzaro* (Leitza), *Orontzaro* (Andoain), *Onontzaro* (Berastegi, Larraun), *Onentzaro* (Lizarza, Ezkurra), *Orentzago* (Zarauz), *Orentzero* (Bera), *Olantz* (Aita Donostia dienez), *Gomezago* (Zumaya), *Suilaro* (Sara), *Xiularo* (Uhart-Mixe), *Xubilaro* (Arakil, Aezkoa), *Suklaro* (Saraitzu), *Gabon* (Bizkai'n, Gipuzkoa geienean, Naparro'ko toki batzuetan), *Gaubon* (Muez), *Gairon* (Ustarrotz), *Gallerre* (Agurain, Alegria -Araba-), *Kallerre* (Ullibarri Gamboa, Argomaniz), *Putierre* (Amarita) eta *Ujanko* (Salinas de Oro).

Sortzez, itz aukeratu zer esan nai duten jakitea egoki litzake. Auzitan dabiltz ordea. Elkarren aidea ba-dute askok; ez guztiak. Arazo ontan *Onenzaro* artu zuan adibide lezoar Isasti'k amazpigarren mendean, «lagun onen garaia» edo «onennaldia» esan nai duela adierazteko (1). Gure egunetan Azkue'k ere iritzi bera agertu zuan eta onartu (2). Uste onek ez nau aski murgiltzen. Aide bera duten gainetiko izenak, geienek beintzat, (*Olentzaro*, *Olentzero*, *Orentzaro*, etab.), bestelako iturriadarrak ote diran nago. Orien

zatiak: *olen* eta *zaro*. Bigarren au ba-dakigu zer dan: «aldi» edo «garaia» noski. *Olen* da egoskaitza, auzitegian dabillena. Batzuen ustez (Aita Echalar eta Caro Baroja), ele ori lenago Frantzia'n «Oleries» deituriko jaien izenetik sortua omen da (3). Gabon-aurreko zazpi egunetan elizgizonak egiten zituzten —eta egiten dituzten— otoi-

tzetan ba-dira zazpi birlelo beren len-izkia *O* dutenak; orregaitik birlelo orien garaia «Oleries» izenaren bidez adierazten zuten.

Altube'tar Seber'en iritzirako, *Olen* erderazko *Noel*'dik sortua da.

Ole ere euskal-izena da, atsegiña edo naiara adierazteko. Ortaz *Olentzaro* izenak atsegiñezko garaia —garaiona— esan naiko luke.

Suilaro, *Subilaro*, *Xubilaro* ba-litazke *subil* edo *sunbil* itzen ondorioak: Gabonetan sutondoan jarri oi degun subilaren oiarzuna; agian garai ortako suatearenak (etxeko sutondoaren izeneta-ko bat baita *subil* ere).

Kalerre, *Galerre* eta *Putierre*, iru izen orien sorrera berriz gاندز inguratua dirudi.

Aipa ditugun izen geienak urtearen asken-aroa adierazten digute. Bainan izen orien babesean eta geraiari estekatuak dabiltz sinismen eta oikunde andana batzuek, Gauonetako jaien erdoki eta muin bezela.

Izenta ditzagun muin auk, bata bestearen ondoren, gure al-dian zinezkoagotzat ezagutu degunagandik asita.

1) Jai auetarako etxean etxekoak beren bizilekua garaiz apaintzen dute, baita aldi ortan bear diran jan-edan bereziak bildu ere: txerria, ardia edo txaala eta kapoiak iltzen dituzte eta odolkiak edo baskantzak, okelia, azak, gaztainak, intxaurrak, olatak, e.a. sotorra, jaki-gelara eta sukaldera ekartzen. Gainera, sutondorako errekiñak eta sukubela edo olentzaro-enborra, erri askotan beintzat.

Bakoitza bere buruagaz jabetu eta bere jomugari eta gizabi-deari dagozkien gogoeten berritze edo eroit-aroa dala-ta, Gauon-

h guberrietan edo Urtezarretan elizara dijoa, an aitorkuntza eta Jaunartzea egiten al dituala, oraindik erri askoten oi-danez.

Gurasoak eta aurrak —etxeakoak eta beren-gain bizi diranak— sortetxean biltzen dira eta egun batean edo bitan elkarrekin bizi.

Beste etxeetatik eldu diranak, jaiotetxera kapoiak dakarzkite gurasoentzat eta, itzultzean, makallauak gurasoen gauonsaari bezela daramazkite. Jai eta elkarrekiko billera oni *Txango* eta *Txangoaldia* deitzen diote Gipuzkoa'ko Goierri'n.

Egun auetako jai, otordu, jostaldi, kantu, otoitz eta gogoe-tak Jesus jaio-berriaren oroipena dute muiñik ziñezkoana edo beintzat izen onen babesean dabiltz etxeetan naiz elizetan eta karriketan.

Gauon-aparia maiaren bedeinkatzetik asten du etxeakoandreak (toki, batzuetan etxejaunak), etxeke illen oroitza aitortuaz. Gero ogipuskaren gordetzea (Bizkai'n, batez ere; amorruek sendatzeko eta ibaiaren etxeitxasoaren uranbillak baretzeko); ondoren, barat-zaki (aza, porru, e.a.), makallau, kapoi eta intxaursaltsaren jatea. Toki askotan baita gaztaiñerre-jatea ere, eta otamen oni, Sara'n eta inguruetan, *Suilaro* deitzen diote; *Suilaro-atsa*, gauari.

Gero elizara dijoatz al dutenak eta an luzaro «kantigak» abestu eta Kristoren jaiotza gartsuki goretsi. Azkenik, gauerdiko edo *Suilaro-atseko* meza eta Jaunartzea. Bereala etxeruntz lotara geienak.

Aurrak egunaz eta larriak (mutillak) gauaz, etxez-etxe eskean dabiltz, beren kantuetan Kristoren jaiotza gagoraziaz edo oroipen onen inguruka alai abestuz eta zerbait bildu naiaz. Ona emen zer dioten erri batzuetan:

Gernika'n eta bere inguruetan abesten dutenaren zatitxo bat auxa:

Gaubeko amabijek
jo duten orduen
gure salbagillie
jaijo da munduen.
Berak erakutziko deuzku
zer egin biar degun,
beraren alabantzak
kantatu dezaigun (3).

Larrabetzua'n:

Eguski dibinala,
gabaren gauandian
urten senduan mundura
gixonaren trajian (4).

Eibar'en:

Gabon-gabonete
errez-errezete:
Jesus jaio da-ta
jo daigun kriskete (5).

Eskoriatza'n:

Gabon-gabonseta
edo sagarseta:
gure jauna jaio da,
jo daigun krisketa (6).

Altsasu'n:

Aur Jesus, Maria, Jose,
Joakin eta Ana,
badakugu Jesus maitia
jaio zan gaua dala.

Iñork ezin berri bat eman
bera baino obia
Belenen jaio omen zaigu
gure Salbadoria (7).

Ataun'en:

Agur, agur jente noblea
guztioi Gauon-gauean:
Belen'dik gatoz pozaren pozez
Jesus jaio danean (8).

Isasondo'n:

Eba ederra Joseperekin
Belen'en degu topatu:
ango estalpe pobre batean
eman zioten ostatu.

Estalpe pobre orretan zeuden
Jesus, Maria eta Jose.
Gure munduaren ejenplorako
berak nai zuten alaxe (9).

Bidania,n:

Belengo portaleko
estalpe batian
umil jaio da Jesus
Ganadu artian.

Lenengo erredimitu,
gero nola bizi
erakusteko Jesus
da zerutik jetxi (10).

Andoain'en:

Jesus, Jesus esango degu
lendabiziko itzian:
Jesukristo izan dadilla
beron da gure etxian (11).

Oyartzunen:

Emen eldu gerade
berri on batekin:
Belen'en jaio zaigun
aurtxo Jesus'ekin (12).

Bera'n:

Dios te salve! Ongi etorri,
Gabon Jainkoak direla,
Gabon Jainkoak direta eta
urte onian sar gaitzala (13).

Otxagabia'n:

Kristo sorzen guztioi gaur,
alegra giten guztiok gaur (14).

Ustarroz'en:

Ai Maria, Gairengai ona,
sortu da Jein ona (15).

Uhart-Mixe'n, Kristoren jaiotza ospatzeko egiten duten baraua-
gaz oroitzen dira, esanaz:

Xuilaro laro eguna
haurren barur eguna.
Zazpi izar yelgeta
haurren askalorena (16).

Geiagoko xeetasunik aipatzen ibili gabe, esanak aski adieraz-
ten digute zelako etxemiña eta kristau-ikusgunea duten Euskale-
rrian Gauon-Eguberriak edo Olentzaro-jaiak.

2)Olentzaro urte-garai bat dala ba-dakigu. Bere aditzera —
izen orren aditzera— Gipuzkoa'ko itxasaldean, Beterri'n eta Na-
parroa'ko iparraldean bereziki auteman degu. Ba-du ordea beste
esanai bat ere: garai ortan, uste denez, agertu oi da gizaki bat,
alegia.

Toki batzuetan Gauonetako gaztediaren eskeak eta kantuak
Olentzaro izeneko gizaki orri lotuak dabiltz, *ustez-eta gizaki onek*
Kristoren jaiotza guri adieraztera etorri zaigula.

Zenbait erritan (Leitza'n, Oyaratzun'en, Arakil'en eta Lesa-
ka'n), Olentzero'ren iduria —lastozko giza-iduria—, baiartan ja-
rria, bizkarrean eramanez, eskean etxez-etxe ibiltzen dira, egunaz
umeak eta gauaz larriak.

Oyartxun'go mutillak beren arteko bat jazten dute Olentza-
ro: aurpegia ikatzez beztu (ikazkiña), ezpañetan pipa, argia eskuan.
Kaiola batean edo baiartan jartzen dute eta etxez-etxe erabiltzen.
Bera'n, Pasaya'n, Andoain'en eta Elduain'en oikunde bera zuten.

Oyartzun'en, Olentzaro'rekin eskean dabiltzanak ona zer dioten:

Olentzero juantzaigu
mendirala lanera
intentziyuarekin
ikatz egitera.
Adittu duenian
Jesus jaio dala,
lasterka etorri da
parte amatera (17).

Onen antzekoak dira Donostia'n Baroja (Pio)'k eta Irun'en Aita Donostia'k bildu zituzten abestiak ere (18).

Beraz, erri auetan Olentzaro aldarrikari bat da, Kristoren jaiotza adierazten duana, alegia. Berez ikazkiña, menditik eldu dana; beste lekuetan berriz abeltzaina, ota-sorta nizkarrean eta igitaia eskuan, menditik datorrena (Berástegi, Larraun), jai auetarako gertu egote arren egin bear degun barurra zainduerazten duana, e.a. (19).

Eginkizun beru (Jesuséan jaiotza adieraztea) burutu naiez, errietara jetxi zana mairu bat edo jentil bat zala uste dute beste erribatzuetan (Ernani, Ataun, Urdiain, Idiazabal). Ara zer dioten Ataun'en: Leizadi'ko (20) jentillak, beren arpe-ataritik, laiño argi bat ostrian ikusi omentzuten.

Izitu omentziran eta beren arteko zaar bati galde: ea zer esan nai zuan laiño arek.

Laiñoa ikusita, zaarrak auxe esan: «A; nere umeok! Gureak egin dik: jaio dek *Kixmie*. Ez deat geiago bizi nai eta amildu nazarute malloan beera».

Amildu omentzuten beren igarlea eta berak ies arpearen barnera eta an betiko ezkutatu.

Aietako bat ordea errira jetxi eta *Kixmi*'ren berri ango jentillai eraman (21).

Esaunda bera bildu det geroztik Aralar'en, Segura'n Urdiain'en, Idiazabal'en, Zerain'en, Orozko'n, Arano'n, Etxarri-Aranaz'en, Ernani'n eta Oyartzun'en.

3) *Olentzaro* dalazko gizakiari itsasiak ba-dabiltz beste gogoeta, sinismen, iduripen eta oikunde batzuek ere, kristau kutsu gabeak dirudienez. Aipa ditzagun:

A) Gauon-gauaz agertzen dan *Olentzaro* gizaki izigarri bat omen da, begigorri odolartuak dituana eta aurpegi illun ikatzes bez-tua dakarrena (*Elduain*).

B) Urteak zenbat egun, *Olentzaro*'k inbeste begi eta oraindik bat geiago omen ditu (*Larraun*), *Azkue*'k dionez.

D) Ote-sorta bizkarrean eta igitaia eskuan, bildurgarri agertzen omen da, *Berastegi*'n diotenez.

E) Jale eta edale neurrigabea dala uste dute *Zarautz*'en. *Lizartza*'n eta *Oyartzun*'en.

F) Gauon-gauean menditik jetxi eta tximini edo kezuloan beera etxera sartzen dala esaten dute *Lizartza*'n, *Elduain*'en, *Berastegi*'n eta *Orexa*'n.

G) Kezuloak garbi nai dituale eta, ala ez ba-daude, etxekoai burua mozten diela (*Elduain*'en).

H) Ez da bakarra: andrea ere ba-omen du (*Oyartzun*).

I) Etxekoak, Gauon-aparia eginda, oera joaten diranean, *Olentzaro* sukaldean sartzen omen da (*Oyantzun*).

J) *Larraun*'go errietan *Olentzaro*'ren iduria kezuloan dilindan edukitzen dute, igitaia eskuan eta txapela buruan, gauerdiko mezaondorarte.

* * *

Olentzaro'ren ikusgune auetako batzuek, *Gauonetako* kanta askotan ageri dira. Ikus ditzagun bat edo beste.

Larraun'go eske-batzailleak au diote:

Onontzaro begi gorri
txaminira da etorri;
austen baldin ba-dogu barua,
orrek lepua kendu guri.

Oyartzun'en eta Lizartza'n abesten dutena ara emen:

Orra, orra
gure Olentzero;
pipa ortzian duela
exerita dago.
Kapoiak ere battu
arrautzatxuakin
biar berendatzeko
botil arduakin.

Olentzero guria
ezin degu ase:
osorik jan dizkigu
amar zerri gazte:
sayeski ta solomo
makiña bat este:
Jesus jayo dalako
kontsola zattezte!

Olentzero guria,
portuna tristia,
arropak saldu dizka
bere emaztiak.

Olentzero buru-aundiya
entendimentuz jantziya:
bart arratsian ustu digu
amar arruako zagiya.
Ay, urde tripaundiya!

Bera,'n, Caro Baroja'k dionez, auxe abesten dute:

Olentzaro
buru aundiya
entendimentu gabia,
juan den gabian
edan duela
amar arruko zagia.
Ai urde trip' aundiya,
sagar ustelez bettia!

Lesaka'n ere berdin abesten dute.

Larraun'en moskortzat daukate Olentzaro. Ara zer dioten:

Onontzaro begi-gorri,
non arraptu duk arrai ori?
bart arratseko amaiketan
Zurriolako arroketan.

Onen antzekoa da Zumaya'n abesten dutena:

Gomenzago buru-aundi.
non arrapatu'ek arrai ori?
Bart arratseko ordu bietan
itxasuaren erdian (*Kepa Zubia'k eskutitzez esana*).

Arraiak moskorkeria esan nai baitu, leku batzuetan, Azkue jannak dionez.

4) **Suak.** Lesaka'n, Leitzan eta Arakil'en iduri ori leio batean jartzen dute, eta gero —Lesaka'n beintzat— lastozko *Olentzaro* ori plazan erre oi dute, Caro Baroja'k dionez (22).

Lesaka'ko *Olentzaro*-erretzeak ba-du, dirudienez, zerrikusi beste erri batzuetan (Araba'n) urtezarrez egin oi duten su bereziagaz. Gazeo'n eta Onraitia'n bizpairu etxeko lagunak su aundi bat egiten dute apalondoan. Su ortan gaztañak erretzen dituzte eta jan. Bitartean mutikoak, zagi zarrai su emanda, makila baten muturrean zinzilik dituztela ibiltzen dira oyuka esanez: *erre pui erre*, «quémale el culo al año viejo».

Garayo'n mutillak lastozko gizaiduriak egiten dituzte. Urte-zarraren iduriak dirala-ta, gauaz su ematen die, oyuka esanez: *erre puyerre*.

Amarita'n ere zagi bat erretzen dute eta, bitartean, au esan: *erre pui erre*, «a quemar el culo a Putierre».

Salbatierria'n eta Alegria'n *Gallerre* deitzen zioten urtezarren iduriari, eta bera erretzen.

Ullibarri-Ganboa'n eta Argomaniz'en berriz *Kalerre* zan urtezar. Eta «*erre Kalerre*, a quemar el culo al año», esanez, sua zeriola erabiltzen zuten bere iduria (23).

5) **Gabon-zuzia.** *Olentzaro*'kin badute zerrikusi Sara'ko *Suilaro*'k, Arakil'go *Xubilaro*'k, Uharte-Mixe'ko *Xiularo*'k eta Saraitzu'ko *Suklaro*'k: denak Gauonetako urtegarai adierazten bai dute.

Izen auek, beren egitez, *subil* eta *aro* dituzte beren sustraitzat. *Aro* eta *zaro* berdiñak dira. *Subil* berriz zuaitzaren gerria edo adar lodia da. Ataun'en *sunbilla* deitzen diogu.

Gauonetako subilari Oyartzun'en *Olentzero-enbor* esan oi diote; *Onontzaro-mokor*, Larraun'en; *Orentzago-mozkor*, Zarautz'en; *Gabon-mukur*, Bedia'n; *Gabon-subil*, Antzuola'n eta Abadiño'n; *Gabon-zuzi*, Zegama'n; *Gabon*, Trespuentes'en; *Porrondoko*, Salvatierra,n; *Subilaro-egur*, Aezkoa'n; *Suklaro-egur*, Saraitzu'n; *Sukubela*, Liginaga'n.

Sunbil ori Gauon-gauean sutan jarri oi dute Euskalerriko et-

xe askotan: Llodio'n, Trespuentes'en, Salvatierra'n, Bedia'n, Otxandixo'n, Arratia'n, Abadiño'n, Plazentzia'n, Antzuola'n, Zøgama'n, Oyartzun'en, Ezkiroz'en, Eraso'n, Arakil'en, Zaraitzu'n, Liginaga'n, etab.

Trespuentes'en jartzen zuten Gabon-subila, idi-uztarde batek sartzen zuan sukaldean eta urte guztian sutunean edo sutondoan irauten zuan. Larraun'en Gauon-egunean eta Gauon-gauaz sutan edukitzen zuten; Llodio'n eta Salvatierra'n, Urte-zar arte; Arratia'n, Otxandixo'n eta Zaraitzu'n, Gauon-gauean bakarrik.

Ezkiroz'en eta Elkano'n iru subil jartzen dituzte: bat Jainkoari, bestea Andre Maria'ri, irugarrena etxeakoai. Eraso'n eta Arakil'en gañera etxeako guztiai subil bana jarri oi die eta eskalearentzat beste bat.

Olaeta'n, urte-zar gauean pago-subil bat pizten dute eta bere ondoan erre oi dute erabat aurreko urtezarrez piztu zutena.

Dima'n gabon-mukurra gau guztian erretzen edukitzen dute.

Zuberoa'n Gauon-gauez egur orren zati bat erretzen dute eta bestea gabezian bizi diranai eman.

Larrabetzua'n *Gabon-sua* egiten zuten Jesus berotzeko zala-ta.

Arakil'go oikunde bat auxe: Gabon-gauean egur batzuek er-tu eta bakoitza eskaintzen diote bati esanaz: «au Jaikoarentzat, au Andre Mariarentzat, au aitarentzat, au amarentzat au anaia Ped-roarentzat, etab. Azkenekoa eskalearentzat. Izenta diran lagunen bat iltzen ba-da, bere egurra oe ondoan jartzen diote. Jainkoaren egurra Salantonetan atarian pizten dute eta beraren gainetik igar-oerazten dituzte zaldiak eta beorrak. Ondoren egur orrekin etxea lurrindu oi dute.

Ibarruri'n Gauon-gauean sutunean egiten dan autsa Sanetztoanez soroetan, gurutze idurian, zabaltzen dute, *pixtiak akabatzeko*.

Aezkoan gabon-zuziaren ondarrak piztu eta beren keaz lurrintzen zuten beiazen arrapea, eritua eta aunditua edo gogortua zego-larik (25).

Subil orrek, Gauon-gauez edo urtearrez sutan egon dalako, indar berezia omen du. Oyartzun'en bere sutan aparria eratzen dute. Antzuola'n eta Abadiño'n ere berdin, eta gañera, apalondoan etxeako danak bere inguruan berotzen egon oi dira.

Elduain'en su aundia egiten dute Gauon-gauaz; bestela Olentzaro, igitai bat eskuan, kezulotik beera jexten omenda eta etxe-koak ill.

Ezkiroz'en Jainkoarentzat Gauon-gauaz piztutako subilla, etxeko atalarrian jartzen dute Urteberriz, edo bestela Salantonez eta bere gaiñetik etxeko abereak erabilerazi. Orren bidez urte berrian abereak ez dirala, ezbearrez, galduko uste dute. Oikunde bera zuten Oyartzun'en; baita Arakilen ere, leen esan degunez.

Salvatierra'n subil orrek ekaitz gaiztoak urruntzeko indarra duela-ta, odei aserre bat alderatzen dalarik, berririo sutan jartzen dute.

Otxandixo'n eta Arratia'n, zezena duten etxetako oitura berezia au da: egur bi jartzen dituzte sutan Gauon-gauaz'ko apalgarai; mutur banatik erretzen dira zerbati; gero bietan luzeenari mutur errea pitza eta beste egurra pitzatuan gurutzatu; gurutze ori zezenaren ikulluan ezarri: zezenak ez omen du *maminpartidu* dalazko gaitzik urte guztian izango.

Zornotza'n uste dute erbiñudeak ez diela etxekoai kalterik egingo, ezta ere beren abereai, Gauonetan subila pizten ba-dute. Ez diote suari iltzera uzten gau ortan: bestela etxekoen bat urte barruan ilko ote dan bildur baitira.

Gabon-mukurra edo bere ikatza etxean gordetzeko oitura dute Bedia'n: orrek etxea bedeinkatzen omen du-ta.

Liginaga'n Gabon-subilak edo Sukubelak ardai ume-uraxeak sorrerazten diela uste dute.

Eraso'n bat iltzen dalarik, bere gabon-subilla ondoan lagun jartzen diote.

Sinismen eta esaunda auk aski adierazten digute *Olentzaro-enborraren* ezaguera izen ori baiño askoz geiago edatua dagola Euskalerrian (26).

6) Gauonetako ogia. Gauon-gauaz, aparia gertu dalarik, etxeko guztiak maiaren inguruan jartzen dira. Zornotza'ko eta beste erri batzuetako oitura da etxeko buruzagiak (geienetan etxekoan-dreak) jana bedeinkatzea. Batek artzen du ogia, labaiñarekin gurutze bat marrezten dio gainean, muña egiten dio eta bereala ebatkitzen zati bat. Batzuek ardo-tintta bat (edo iru Bedia'n) botat-

zen diote eta apariak dirauen artean maiko zapiaren azpian gordetzen, batzuek baita gau guztian ere, edota Urteberri arteko otorduetan. Ogi-zati oni *Ogisalutadorea* deitzen. Bera jaten duen aberea edo iizia ez omen da amorratzen edo amorru ariña izaten omen du.

Forua'n oikunde bera. Diotenez, ogi-zati ori ez omen da urdintzen edo lizuntzen.

Bedia'n berdin egiten dute eta ogi-zatia toki berezian Urtezareguna ezkerre gorde. Urrengo Gauonetan maian jartzen dute eta, zati berria bedeinkatu ondoren, etxeko lagunai eta abereai jateko ematen (27).

Azkue'k dionez, Larraun'en Gauonetako gauerdi ondoren sorgin-aparia egiten dute, su aundia pizten eta ogi bat maiko zapiariaren gainean jarri, «Aingeruak dantza ditezela gure zukaldean» esanaz, baldin eta Maria'k eta San Jose'k jan nai ba-dute.

Gauon-aparitako ogi-koskorra gurutzea eginda lurrera botatzen badute, ez omen dute zakurrak jaten. Ala diote Arrona'n (28). Zornotzan ere ba-da sinestea Gauonetako ogi ori ez dutela abereak jaten Gauon-gauean (29).

Gauonetako euna. Larraun'en ba-zan Eguberri-goizean aria iruteko oitura. Andre-Mariaren oroipenean.

Bizkaia'n ere toki askotan Eguberri-goizean iotako ariaz egiten zan eunez'ko atorrak jazten zituzten. Lamiñak ez omen zuten orrelakoari kalte egiteko almenik. *Lamiaran* eta *Errosape*, Bermeo eta Mundaka bitarteko bi leku orietan bizi omen ziran *Lamiñak*. Bein gizon bat omen zijoan inguru artan. Errosapeko Lamiña batek oiuka omen zion: «A Lamiarangoa!» — «Zer gura dona, Errosapekoa?» erantzun Lamiarango lagunak. — «Or doan orreri bota eiona lakirioa». — «Zelan botako ddotsanat lakirioa? Gabonariz egina ddaroiana soinekoa» (30).

Gauonetako baratzuria. Gauonetako Ogisalutadorearen indar bera dutela Gauon-egunean erein eta Donibanez biltzen diran baratzuriak, uste dute Bedia'n; eta amorraturik zeuden lagunak, baratzuri oriek jan-da, sendatu zirelako berrieaz erritar asko oroitzen dira oraindik (31).

Sara'n ere sinismen bera dute askok. Neskatx bat amorratu

omentzan eta etxeokak gela batean sarrerazi omentzuten. Gela ortan zorionez Gabonetan erein eta Donibanez bidûtako baratxuriak egon eta neskatzak jan. Bereala gaitza sendatu omen zitzaion (32).

Gauonetako ale eta mahoa. Gauonetan, gaberdjiko meza ez-kero sukaldean gari najz garagar-bikorrrik agertzen bada, urte ura garitsua edo garagartsua izaten dala diote Aezkoan.

Garay'n uste dute Gauonetako gauerdian maho edo krabeli-ña lurrean aldatu ezker, ederra etortzen dala (33).

Gauonetako jaki bereziak. Euskalerrian geien izenta oi diran Gauonetako jakiak dira intxaurrak, gaztaiñak, makallaua eta bigua. Baita oliô-aza ere toki askotan (34).

7) **Gabonzarreko ura.** Bizkai'ko erri askotan *Gabonzar* deitzen diote urtearen azkeneko egunari. Goierriko toki batzuetan (Atáun eta Segura aldean) leenago *Gauonzar* esan oi zioten.

Suarekin ez ezik urarekin ere ba-dute zerrikusi Gauonak eta Gauonzarrak. Naparroa'ko Donamaria'n Gauonzarrez amabietan iturriari zerion ura artu et etxeetara eramane oi zuten edateko, urte berrian zoriona etxeokak izan zezaten.

Oderiz'en etxeetara gau ortan umeak joaten ziran kantuz ura eskeintzera, esanaz auxe:

Ur goyena, ur barruna,
urte berri, egun ona
egun onaren señaleara
emen dakargu ur berria.

Elizondo'n au esaten dute:

Urte berri, berri'
zer dakarrazu berri?
Uraren gañan
bakia eta osasuna.
Urtets...! Urtets...! Urtets...!

Lekarotz'en eta Elgorriaga'n ere berdin ibiltzen dira eta lelo bera esaten ura eskainiaz (35).

Alsasu'n diotena au da:

Ur barrena, ur goyena,
urte-berri egun ona,
etxe ontan sartu dedilla
pakiarekin osasuna,
urarekin ondasuna (36).

8) *Olentzero* ez da toki askotan aipatzen duten itza, Baiñan berari ezarriak dabiltzan zenbait sinismen eta oikunde nunai ageri dira, naiz Euskalerrian eta naiz erbestean, batikbait indoeuropatarren errialdeetan; ez ordea nabardura berdiñean.

Sinismen eta oikunde oriek —suari eta urari degozkienak beintzat— loturik daude, ez Gauonai bakarrik, baita Urtezarrai eta Donibane-aurreko gauari ere.

Gauonetan eta Donibanez egin oi ditugun suak, etxekoen eta beren abere eta gauzen alde indar berezia dutelazko siñestea oso zabaldua dabil

Donibane-aurreko gauean Zegama'ko mutillak zagia, sua zeriola, makillan zinzilik erabiltzen zuten, eta bere pikaz etxeetako ateak beztu, Urtezarrez Amarita'n, Gazeo'n eta Onraitia'n egin oi zuten bezala.

Durango'n eta Lizartza'n berdin erabiltzen zituzten zegiak.

Larraun'en zagia su-ta-gar erabiltzen dute eta bere pikea ontzi batean biltzen, itzautzek sendatzeko.

Berastegi'n iru kuuso, arbisoroan egonak, erretzen zituzten eta berarengaiñetik jauzika ibilli (37).

9) *Olentzaro* eta *Subilaro* urtearen azken-aldea adierazten dituten izenak dirala esan degu.

Olentzaro —ikazkiñ, ota-ekarle eta igitaidun gizona— igaro dan urtea dala dirudi, *Kalerre* bezela.

Olentzaro-enbor edo *Sukubela* eguzkia sorrerazteko eta indartzeko indoeuropatarrak pizten zuten —eta duten— sunbilla da. Eurek, eguzkiaren itzulmugan, atondu eta piztu oi zituzten suak,

auen bidez eguzkia berritze arren (38). Sua eguzkiaren antzeko izaki bat baita, suaren indarrez eguzkia eraendu nai zuten, eta lurra biezierazi eta gaizkin guztiak aldendu (39).

Olentzaro. —Leizadi'ko *Zirpi*, Aralar'go edo *Akotain*'go eta *Layene*'ko jentilla edota Iturbei'ko mairua — Kristoren adirazlari azaltzen zaigu emen Gabonai buruz dakizkigun esaunda eta oikunde zinezkoenen muiñetan. Egun auetako ikuspegiaren erdian bera ageri zaigu beraz Euskalerriko lurraldeetara Kristoren berri lenengo ar-diz barraiatu zuan ereile eta misiolari bezela (40).

- (1) *Compendio historial de la muy noble y muy leal prov. de Guip.*, San Sebastián, 1850.
- (2) *Euskalerrriaren Yakintza*, I, págs. 223-230. Madrid, 1935.
- (3) Anuario de Eusko-Folklore, vol. II, pág. 85.
- (4) Anuario de E.-F., vol. II, pág. 62.
- (5) Anuario de E.-F., vol. X, pág. 72.
- (6) Anuario de E.-F., vol. X, *ibid.*
- (7) Anuario de E.-F., vol. XIII, págs. 22 y 23.
- (8) Gauonétako eskean abesten genduen (1904n urtean).
- (9) Anuario de E.-F., vol. XIII, pág. 32.
- (10) Anuario de E.-F., vol. II, págs. 44 y 45.
- (11) Anuario de E.-F., vol. IV, pág. 60.
- (12) Anuario de E.-F., vol. XIII, pág. 35.
- (13) José Antonio de Donostia: *Canciones de cuestación* (RIEV, t. IX, pág. 154)
- (14) Anuario de E.-F., vol. XIII, pág. 18.
- (15) Anuario de E.-F., vol. XIII, pág. 12.
- (16) José Miguel de Barandiarán: *Obras Completas*, vol. IV, pág. 140. Bilbao, 1974.
- (17) Anuario de E.-F., vol. II, pág. 15.
- (18) Baroja (Pío): *Olentzero* («Intermedios». Madrid, 1931). —P. José Antonio de Donostia: *Op. cit.* (RIEV, vol. IX, pág. 146).
- (19) Negu-garaian eta geroago ba-zan leenago (ia gaurdaño) gure errietan oteagaz abereak bazkatzeko oitura. Igitai eta sarde bat eskuan zituala joaten zan aberezaia otadietara otaxka xamurrak biltzera.

- (20) *Leizadi*, monte de Atáun.
- (21) Ara or aspaldi (1900n urtean gutxi-gora-bera) entzun izan nuan esaunda, geroago (1916n urtean) Aralar-en xeeke ikasi nuena eta orain berriro Ataun-Mendiurkullu'n, Agirre (Felipe) nere auzolagunak esan didana.
- (22) *Olentzaro* («Revista de Dialectología y Tradiciones Populares», 1946, 1º).
- (23) J. M. de Barandiarán: *Olentzaro, Kalerre ta Subilaro* («Egan», 5-6, 1956).
- (24) J. M. de Barandiarán: *Op. cit.* — Anuario de E.-F., II, 132-134n or.
- (25) R. M. de Azkue: *Euskalerraren Yakintza*, I, 329n or.
- (26) J. M. de Barandiarán: *Op. cit.* 8-9n or.
- (27) Anuario de E.-F.: 59, 73 eta 79n or.
- (28) R. M. de Azkue: *Op. cit.*, 328 eta 330n or.
- (29) Anuario de E.-F., II, 79n or.
- (30) R. M. de Azkue: *Op. cit.*, 328n or.
- (31) Anuario de E.-F., II, 74n or.
- (32) J. M. de Barandiarán: *Obras Completas*, V. 174-175n or.
- (33) R. M. de Azkue, *op. cit.*, 328n or.
- (34) Anuario de E.-F., II, *passim*.
- (35) P. J. A. de Donostia, *op. cit.*, 163-164n or.
- (36) Anuario de E.-F., II, 135-136n or.
- (37) J. M. de Barandiarán: *Olentzaro, Kalerre ta Subilaro* («EGAN» 5-6, 1956).
- (38) Carl Clemen: *Religionsgeschichte Europas*, I, 177. Heidelberg, 1926.
- (39) Leopold von Schroeder: *Arische Religion*, II, 198-240. Leipzig. 1923.
- (40) Ikus «KIXMI» (Nere «Obras Completas», I, 132-133 or.).